

DSBE berritzeko aurreproiektuak
gaur egungo murrizketak finkatu
eta atzerakada berriak sartu ditu

2021eko uztailak 27



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. Aurrekariak	3
2. Aurreproiektuaren a alderdi azpimarragarriak.....	3
3. Ondorioak	5

1. AURREKARIAK

Aurreproiektua Enplegu eta Lan Sail berriak egin du, hau da, PSEren hasierako erreforma da, eta ez EAJ-PSE koalizioan dagoen Gobernuarena. Hori dela eta, izapideek bien arteko ekarpenak eta akordioak egitera eta aurreproiektu berri bat aurkeztera eramango dituzte, gero Legebiltzarreko tramitera iristeko.

Aurreko legegintzaldian EAJk eta PSEk diru-sarrerak bermatzeko aurkeztutako lege proposamenari dagokionez aldaketak aurreikusten dituen arren, azken urteetan egindako murrizketa politikari jarraitzen dio, eta diru-sarrerak eta gizarteratzea bermatzeko 18/2008 Legea (nahikoa ez dena) hustu du.

Illo horretatik, esan ez duela jasotzen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak bultzatutako HELn erreklamatutako aldarrikapen bakar bat ere, 51.000 sinaduraz abalatua eta haren eztabaida parlamentuko tramitean errefusatua izan zena.

2 AURREPROIEKTUAREN ALDERDI AZPIMARRAGARRIAK

2.1. Zenbatekoari dagokionez

18/2008 Legeak prestazioaren zenbatekoa finkatzen du LGSren arabera; zehazki, LGSaren %88 bakarrik bizi diren pertsonentzat ezartzen da, %113 bi pertsonako bizikidetza-unitateentzat eta %125 hiru pertsona edo gehiagorentzat. Pentsiodunentzako LGSaren % 100 izanen da zenbatekoa. Lege hau aplikatzeak berarekin ekarriko luke bakarrik bizi den pertsona batentzat bermatutako diru-sarrerak hilean 975 eurokoak izatea (hamabi hilekotan). Pentsiodunen kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta 1.108 eurokoa izango litzateke.

2012az geroztik, DSBEaren zenbatekoa murrizten ari da aurrekontuen bidez. Hala, azken urteotan, aurrekontu bakoitzean kopuru zehatz bat ezarri da urte bakoitzeko DSBErako, Legearen

aplikazioarekin legokiokeena baino askoz txikiagoa. Horrela, 2021ean, DSBEaren zenbatekoa, bakarrik bizi den pertsona batentzat, 706 eurokoa da hilean (2008ko Legeari dagokiona baino 249 euro gutxiago). Pentsiodun batentzat 810 euro da (Legeari baino 292 euro gutxiago).

Aurreproiektuak DSBE kalkulatzeko modu berri bat ezartzen du. Prestazioaren abiapuntua Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera (469,93 €) izango litzateke, eta banakako osagarri batzuk gehituko litzaizkioke:

- Bizikidetza unitateko kide bakoitzeko (titularraren oinarritzko zenbatekoaren % 50 eta onuradunen % 30).
- Guraso bakarreko bizikidetza-unitateentzat, genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimetentzat, pentsiodunentzat, % 45 baino gehiagoko ezgaitasuna duten pertsona batek edo gehiagok osatutako unitateentzat, % 40ko osagarria ezarri da pentsiodunentzat eta % 25ekoa gainerakoentzat.

Aurreproiektuko irizpideak aplikatzeak bereizi egiten ditu DSBEaren zenbatekoa eta LGS, horrela DSBE arrunterako gauzak dauden bezala utziz (705 euro gaur egungo 706 euroen aldean lirateke), eta pentsiodunentzako gehikuntza batekin (810 eurotik 893 eurora pasatuko lirateke). Nolanahi ere, zenbatekoak 2008ko Legeari dagozkionak baino askoz txikiagoak dira.

DSBEaren ZENBATEKOA (ORAINGOA, AURREPROIEKTUA ETA 2008ko LEGEAREN ARABERA)

	2008 Legea	2021	Aurreproiektua
ARRUNTA	975€	706€	705€
PENTSIONISTA	1.108€	810€	893€

2.2. Etxeko bizikidetza unitateari dagokionez

Aurreko legegintzaldian aurkeztutako lege proposamenean eta 2008ko Legean ez bezala, aurreproiektuak ez ditu etxe bakoitzeko bizikidetza unitateak mugatzen.

Hori bai, etxebizitza batean bizikidetza unitate bat baino gehiago bizi bada, indize zuzentzailea aplikatuko da jaso beharreko oinarritzko zenbatekoaren eta osagarrien gainean. Hau da, bi bizikidetza unitate badaude, bakoitzak oinarritzko zenbatekoaren eta dagozkion osagarrien % 85 jasoko du. Hiruren kasuan, %80, eta hortik gora bakoitzeko %5 gutxiago.

2.3. Adina

Prestazioa jasotzeko gutxieneko adina 23 urtekoa da oraindik, salbu eta 18 eta 23 urte bitarteko gazteak urtebete independentean bizi izan badira eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egon badira 240 egunez, prestazioa eskatu aurreko bi urteetan.

2.4. Erroldatze epeak

Aurreko proposamenean bezala, 2 urteko erroldatzea ezartzen da adingabeak ardurapean daudenean. Gaur egun 3 urte dira kasu guztietan, eta ez da kontuan hartzen adingabeak dauden ala ez. Nolanahi ere, urte batean erroldatuta egon beharra ezartzen zuen 2008ko legeak, beraz, murrizketa izaten jarraitzen du.

2.5. Laneko dirusarreraren osagarria

Laneko dirusarreraren osagarria erregelamenduz garatu gabe geratzen da, horrek dakarren arriskuarekin.

2.6. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren desagerpena

Desagertu egin da etxebizitzarako prestazio osagarria (EKP). Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean ezarritakoaren arabera, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak (BPB) ordeztuko du. Prestazio hori murriztaileagoa da, bai sartzeko baldintzei dagokienez, bai zenbatekoari dagokienez. Gobernuaren arabera, BPBn aldaketa bat planteatzen ari dira, baina ez dakigu benetako edukia zein den.

2.7. Prestazioak jasotzen dituztenen kriminalizazioa

Nahiz eta prestazioa mugagabea izan, jasotzaileen kontrol eta kriminalizazio mailak etengabeak izan dira planteatutako erreforma guztietan. Bada, aurreproiektuak joera horri jarraitzen dio, eta, bi urtean behin berritzeari eusteaz gain, hiru hilean behin zenbatekoa eguneratzea, sei hilabete iraun dezaketen kontrol-prozedurak (teknika biometrikoen eta adimen artifizialaren aukera berrezarri da) eta Lanbideko ikuskatzaileek ikuskapenak egitea, agintaritzaren agente gisa jardun dezaten.

3. ONDORIOAK

- Gizarte prestazioetan ere murrizketa politikarekin jarraitzen da. Gizarte prestazioen sistema hobetu egin behar da, gizarte kohesiorako funtsezko elementua baita.
- Diru sarrerak bermatzeko errentaren erreformarako aurreproiektuak egungo murrizketak finkatzea eta atzerakada berrietan sakontzea planteatzen du.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA